

## OINARRIZKO EKINTZAK



Gure produktua promozionatuko dugu bideo baten bitartez , sare sozialetan jarriko dugu. Adibidez, instagramen eta Tik Token, kontu bat egingo dugu, bertan, bideoak eta argazkiak igoko ditugu, gure produktua salduz. Bideoan, gehien ikustarazi nahi duguna pastilleroaren erabilera izango da, aparatu praktikoa eta segurua dela bermatuz. Hau promozionatzen dugunean bezeroak erakartzea izango da helburua. Bezeroak gure produktua erosten hasten direnean, prozesu bat hasiko da.

1. Web orrian sartu behar dira produktua erosteko, bertan produktua aukeratu eta erosketa egiteko botoian sakatu beharko dute. Zure aukeraketa stock-ean ez badago, produktua ezin duzu eskatu.
2. Behin erosketaren ataelan egonda, zure datu pertsonalak sartu beharko dituzu.
3. Hori egin eta gero produktua erosita izango duzu, aldi berean, zure gmail-an erosketaren konfirmazioa edukiko duzu, ziurtagiri bezala, oso garrantzitsua bertan egongo den kodigoa itzuleraren bat egin behar baduzu.
4. Enpresa bezala, eskaeraren bidalketa egingo dugu.
5. Produktua bidaltzen dugunean, ziurtatuko dugu produktua ahalik eta modu babestuenean bidaliko dugula. Horretarako, burbuilazko plastikoarekin estaliko dugu, ondoren kartoizko kaxa sendo batean sartuko dugu. Erlojua eskatzen baduzu kaxaren barruan beste kaxa txiki batean sartuta egongo da.
6. Produktua enpresatik ateratzen denean erosleei mezu bat iritsiko zaie produktua atera dela eta bere jarraipena izan dezakete banaketa enpresaren web orrialdetik.
7. Bezeroari eskaera iritsiko zaio eta iristen zaionean gaizki egonez gero, 15 egun izango ditu erreklamazioa egiteko.
8. Bezero batek erreklamazioa egin behar badu, gure web orrialdetik egin dezake. Pauso hau egiteko zure datuak ipini beharko dituzu, baita hasierako ziurtagirian zegoen konfirmazio kodigoa.
9. Erreklamazioa onartua izateko aurreko pauso guztiak bete beharko ditu bezeroak. Hau eginda, produktua bueltatu beharko du eta berri bat bidaliko zaio. Produktuaren kostuaren portea enpresaren barne egongo da.

Gure produktua fabrikatzeko pauso hauek jarraituko ditugu. Lehenik eta behin lehengaiak dauzkagula zihurtatuko gara, produktua martxan jartzeko. Lehengaiak hauek izango dira: makina dauzkan kableak, arduino, filamentu birziklatua , sentsoreak eta kableak. Produktua sortzeko osagai nagusia, filamentu birziklatua izango da.

Frabrikatzeko produktu hau, 3 txandatan egingo dugu lan , etekin handia lortzeko asmoarekin. Sentsoreak arduinorekin konektatutak egongo dira eta pastilla

hartzerako orduan, tapa irristakorra izango da. Tapa irristatzean, pastilla hartzeko kasilla ikusgai egongo da, argi baten bidez.

Gure helburu nagusia, etekin handiena lortzea izango da, makinen funtzionamenduri esker. Pastilleroa egin ahal izateko, gure oinarria 3Dko makinarekin egingo dugu. Eskala ekonomia lortzen saiatuko gara, makinak daukan plataforman ahalik eta oinarri gehiago jarritz. Hau da, 256x256x256 ko plataformari esker, ahalik eta produktu gehien ekoiztea saiatuko gara, kostu txikienean. Ahalik eta etekin handiena ateratzeko 4 pastillero 6 ordutan produzitzeko gai gara. Beste aldetik, pastilleroaren tapak ekoizteko 4 tapa ordu eta erditan prest daude.